

IRAUNKORTASUN MEMORIA 2017



Aurkibidea

Mundu iraunkorrako baten alde

Misioa, bisioa eta konpromisoak

Misioa
Bisioa
Konpromisoak

Gure konpromisoa bezeroekin, bidaiariekin eta herritarrekin

Irizarrek jasotako sariak
Irizar e-mobility, elektromugikortasuneko soluzio osoen serieko
produkzioa
Irizar ie tram autobusa merkaturatu da
Etorkizunera begirako Europako proiektuetan parte hartzen dugu

Gure konpromisoa pertsonekin

Konpromisoa enpleguarekin
Konpromisoa komunikaziorik eta parte hartzearekin
Konpromisoa dibertsitatearekin eta berdintasunarekin
Konpromisoa prestakuntzarekin
Konpromisoa lan kontziliazioarekin
Konpromisoa segurtasunarekin eta osasunarekin

Gure konpromisoa kanpoko kolaboratzaileekin

Autokarrak fabrikatzeko hornitzaileak
Aliantza estrategikoak gure salmenta eta saldu ondoko sarerako
Mugikortasunaren geroa zehaztuz
Beste kolaborazio batzuk ingurunearekin

Konpromisoa ingurumenarekin

Ekoberrikuntza
Gure jardura
Autokar hibridoa
%100 elektrikoa den hiri autobusa

Konpromisoa gizartearekin

Gure sektorearekin lotutako jarduerak
Kultura jarduerak
Heziketa jarduerak
Kirol jarduerak
Arlo sozialeko jarduerak



Mundu iraunkorrago baten alde

Aurten ere 2017ko iraunkortasun memoria aurkeztera gatoz. Memoria honetan, Nazio Batuen Munduko Itunak giza eskubideei, lan eskubideei, ingurumenari eta ustelkeriaren kontrako borrokari buruz jasotzen dituen hamar printzipioekin hartua dugun konpromiso irmoa islatzeaz gain, bezero, bidaiari, kanpoko kolaboratzaile, gizarte eta ingurumenari lotuta aurrera ateratzen ari garen egitasmo nagusiak jasotzen dira.

Irizar da Irizar Groupen enpresa matrizea. Marka, teknologia eta iraunkortasun estrategia hedatu izanaren ondorioz, egungo Irizar industria taldeak ez dauka batere zerikusirik iraganeakoarekin. Taldea dibertsifikaturik dago, eta egun negozio arlo hauetan dago sarturik: bidaiarien garraioa, elektromugikortasuna, elektronika, energia, motor elektrikoak eta konektibitatea.

Markaren sendotasunaren erakusgarri, horra hor 2017an jasotako sariak, eta horien artean aipagarri, Irizar i8 autokarrak jasotakoa, zeina sektoreko saririk garrantzitsuena den eta Europako 2018ko Autokarrik Onenaren errekonozimendua dakarren. Era berean, Europako 2017ko Autobus Egilerik Onenaren saria ere jaso genuen, Busworld Academy Award-en barruan.

Izan ere, gure bezeroen eta herritarren iraunkortasunaren eta ongizatearen aldeko apustu argia egiten jarraitzen dugu; hori dela eta, aurten handitu egin dugu autobus elektrikoen gama. Horretarako, Irizar ie tramen 10,8 m-ko bertsioak eta 18 metroko artikulatua aurkeztu ditugu, elektrikoen artean aukerako karga daukaten artikulatuen orain arteko eskaintza osatuz. Aurreikusten eta espero genuen bezala, hiriak aurrera egiten ari dira elektromugikortasunaren bidean. Errealitate hori hementxe dago jadanik, eta biziagotzen hasi da.

Prest gaude gure bezeroen eskaerari erantzuteko, izan ere, merkatuan dagoen autobus eta autokar gamarik onenetako eta osatuenetako bat da gurea. Gure taldearen teknologiari esker eta erabiltzeko prest erako soluzio osoen aukerari esker, solaskide bakarra edukitzea ahalbidetzen da produktu eta zerbitzu guztietan; hori guztia, duela lau urtetik hona ibilgailu elektrikoak jardunean edukitzeak ematen duen esperientziarekin.

2017an Europako lehen elektromugikortasun planta eskusiboa jarri dugu martxan. Lehen 200 lanpostuak sortu dira. Hori guztia, hirietako garraio sistemen eraldaketan liderrak izaten jarraitzeko, jakinik zail dutela hiritarrek hirietan bizi kalitate egokia edukitzea, kutsadura akustikoa eta aire kutsadura direla eta.

Hirien etorkizuna elektrifikatzeko eta bidaiarien garraio publikorako garrantzitsuak diren Europako proiektuetan parte hartzen dugu honako arlo hauetan: gidatze autonomoan, energia efizientzian, energiaren biltegitratzean, karga azkar eta adimenduneko azpiegiturretan eta konektibitatean - Big datan.

Hala, sendotasunaren eta hazkundearen bideari loturik jarraitzen dugu, bezeroekin eta gizartearekin konprometitutako pertsonekin, markari, teknologiari eta iraunkortasunari dagokienez ahalik eta balio erantsirik handiena eskainiz eta hemendik bertatik lehiatuz, gure inguruneetan aberastasuna eta enplegua lortzea helburu.

Amaitu den urteaz oso harro gaude, urte horrek bikain islatzen duelako ondo egin dugula lan, eta mundu iraunkorrago baten alde egiten dugun ekarpenean aurrerapausoa egin dugulako, nahiz eta ondo jakin oraindik ere asko dugula egiteko.

Zorionak denoi.


José Manuel Orcasitas Landa
Chief Executive Officer Irizar Group


“Hala, sendotasunaren eta hazkundearen bideari loturik jarraitzen dugu, bezeroekin eta gizartearekin konprometitutako pertsonekin, **markari, teknologiari eta iraunkortasunari dagokienez** ahalik eta balio erantsirik handiena eskainiz eta hemendik bertatik lehiatuz, gure inguruneetan aberastasuna eta enplegua lortzea helburu”



Misioa, bisioa eta konpromisoak

Misioa

Gure enpresa proiektua eta marka etengabe indartzea, hazteko eta gure inguruneetan aberastasuna eta enplegua sortzeko.

Giltzarria da gure bezeroek gogobetetze maila altua lortzea, haiekin oso gertuko harremana sortuz eta proiektu sendo baten bermea eskainiz, hartan konfiantza izateko.

Faktore estrategikoa da gure bezeroek behar dituzten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko orduan haien beharretara egokitzeko malgutasuna edukitzea; horrek bereizten gaitu lehiakideengandik eta horrela lortzen dugu bezeroen leialtasuna.

Horrez gain, Irizar Taldearen parte garenok, gure kanpoko laguntzaileak eta gizartea ahalik eta gusturen egoteko lan egiten dugu.

Irizar S. Coop.eko esparru kooperatiboan lan egiten dugu eta lan egingo dugu, Taldeko beste enpresekin komunikazioan eta haien kudeaketan eta emaitzetan parte hartuz.



Bisioa

Segurtasun, fidagarritasun, erosotasun eta errentagarritasunari dago-kienez bereziak diren autokarrak eta autobusak eskaintzea gure bezeroei, bidaiariei eta gizarteari, eta erreferenteak izatea zerbitzuan, kalitatean, diseinuan, berrikuntzan, teknologian eta iraunkortasunean.

Taldearen gainerako jardueretan ere erreferente izatea bezeroei ematen zaien balioan.



Konpromisoak

Egunez egun saiatzen gara liderrak izaten eta lidergo hori gure bezeroei onura gisara itzultzen. Taldean lan egiten dugu eta bezeroarekin eta Taldearen estrategiarekin konprometitutako pertsonekin dihardugu. Efizientzia, komunikazioa, parte hartzea, autokudeaketa eta kudeaketaren bikaintasuna sustatzen ditugu. Ingurune egokiak sortzen ditugu gure proiektuetan dabilzan pertsona guztiek beren talentu, gaitasun eta ilusioen arabera ahalik eta gehien eman dezaten. Giltzarria da etorkizunean arrakasta izan dezagun.



Gure konpromisoa BEZEROEKIN, BIDAIARIEKIN eta HERRITARREKIN



Teknologian, iraunkortasunean eta bezeroenganako gertutasunean oinarrituz azken urteetan Irizar markak hedatu duen estrategia oso emankorra izaten ari da, eta ugari dira bezeroei, bidaiariei eta gizarteari egindako balio ekarpenak:

- **Zerbitzu sareak** hedapen fasean jarraitzen du, eta gaur egun autokarrak dabiltzan leku guztietan aurki daiteke Irizar tailer homologatu eta bermezko bat.

Irizar zerbitzuak soluzio pertsonalizatuak ematen ditu, onena eskaintzeko diseinatuak eta sortuko soluzioak: finantziakzioa, konponketa eta mantentze kontratua, eta baita erabilitako ibilgailua jasotzea ere. Erreferentziako balioa da oraindik ere konponketa zerbitzu osoa, prest jartzea eta erabateko bermea duen mantentze lana edukitzea, eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.

Gainera, Helpdesk bana daukagu Europako herrialde bakoitzean, eta zentrala den beste bat, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan zerbitzua ematen duena.

Ormaiztegiko lantegi nagusiak berriro ere 1.300 autokarreko fabrikazioa gainditu du, eta autokar integralen fabrikazioa %30 hazi da. Nabarmenezkoa da modelo integralen eboluzioa Espainia, Frantzia, Ingalaterra eta Italiako merkatuetan.

- **Inoizko produktu gamarik onena** daukagu, goi teknologiko autokarren belaunaldi berri bat Premium sektorerako, II. klaseko hiriarteko autokarrak, teknologia hibridoarekin edo biodieselarekin, eta zero igorpeneko I. klaseko hiri autobus elektrikoak. Gure produktuen katalogoak segurtasun, fidagarritasun, iraunkortasun, teknologia eta errentagarritasun arloetako bereizgarria ematen die gure bezeroei, eta bidaiarien garraio publikoaren segmentu guztiak barne hartzeko aukera ematen du, bai eskatu ahalako garraio diskrezionalean bai garraio publikoan, hiri barruan eta hiri artean ibiltzeko zein ibilbide luzeak egiteko, eta horrek aurreneko lekuan jartzen gaitu mugikortasunaren merkatuan.

Euro 6 C motorrak eskaintzen dira, zeinak azken belaunaldiko gasolioarekin (10 ppm-ko sufre edukia) edo HVOarekin (landare jatorriko erregai hidrogenatuak) ibil daitezkeen.

- **Teknologia adimenduna.** Bezeroei eta gizarteari balio erantsi handia ematen diegu abangoardiako produktu eta zerbitzuen bitartez, izan ere, produktu eta zerbitzu horietan Taldeko enpresa guztien ezagutzatik sortzen diren soluzio teknologiko aitzindari ugari txertatzen dira. Teknologia horiek oraingo eta geroko erronka handiei erantzuteko pentsatuta daude.

Estrategia horren fruitu gisa, honako hauek aurkeztu ziren 2017an: Irizar motorren belaunaldi berria, Irizarren erloju

koadro birtual berria, 18 metro dituen Irizar electric tram (ie tram) autobus elektriko artikulatua, non motor elektriko berria integratzen den-, bateria berriak eta pantografo bidezko karga sistema berriak.

- **Oso lehiakorra den TCO bat**, batez bestekoaren azpitik dabiltzan CO2 isurpen tasak, sektorean erreferentzia den salmenta osteko zerbitzu bat eta oso altua den hondar balio bat.

Operadoreak aurre egin beharreko kosturik handiena erregaia dela jakinik, Irizarrek ahalegin handia egin du kontsumoak murrizteko. Autokarren belaunaldi berriak TCOrik txikiena eskaintzen du (erosketa kostu totala), eta horren funtsezko elementuak hauek dira: erregai kontsumorik txikiena, olio eta iragazkiak aldatzeko denbora tarte luzeak (150.000 km-ra artekoak), birsorkuntza automatikodun partikula iragazkia -700.000 km egin arte mantentze lanik behar ez duena-, ordezko piezen prezio oso lehiakorra eta zerbitzu gune ugari Europa osoan.

Autokarrei teknologiarik aurreratuena txertatzen ahal diegu kostuen eta efizientziaren segimendu zorrotza egiteko, garraio enpresentzat errazagoa izan dadin flota bakoitzaren errendimendua eta errentagarritasuna optimizatzea.

Irizarrek lagundu egiten die bezeroei, eta gertuko aholkularitza ematen, eta horrek berekin dakar ibilgailuaren fidagarritasuna eta erabilgarritasuna optimizatzea. Gainera, kudeaketa elektroniko integrala eta Irizar konektibitatea sartzen ditu, bai eta flotak kudeatzeko eta telediagnostikorako soluzioak ere, kontsumoak eta isurpenak nabarmen murrizten dituztenak.

- Irizarren indarren artean bat, **diseinuaren ikusgarritasuna** da, zeina kontsumoa optimizatzen duen eta jabeen prestigioa ematen dien aerodinamika baten zerbitzura dagoen. Era berean, sekulako erosotasuna eskaintzen diogu gidariari, gidari eta bidaiariei, esperientzia ahaztezina bermatuz.

Irizarren beste oinarri bat merkatuari eta operadorei mugarik gabeko pertsonalizazioa eskaintzean datza, eta hori, zalantzarik gabe, alderdi bereizgarria da.

Azken batean, Irizar prest dago gaur egungo eta etorkizuneko bidaiari garraioaren beharrei erantzuteko bai zerbitzuei bai mugikortasun iraunkorrari dagokienez.

Irizarrek jasotako sariak

2017ko Gipuzkoako Enpresa Saria

Aldakorra den merkatura egokitzeko gaitasuna; jardue-
ra berrasmutzen jakin eta karrozagile izatetik autobus
eta autokar fabrikatzaile izatera pasatzea; dibertsifika-
zio industrialeko estrategia, eta elektromugikortasuna-
ren aldeko apustua; hortik datorkio Irizarri Gipuzkoako
Merkataritza Ganberak emandako sari hau jasotzea.



2017ko Innobasque Saria

Enpresan berrikuntzari etenik gabe eustegatik jaso
zuen Irizarrek sari hau. Innobasquen dauden 1.053
erakundeen dibertsitatea ordezkatzeko zuten 10 pert-
sonak eta Innobasque sarearen gaitasun berritzaileek
jaso zuten errekonozimendua, izan ere, lankidetzan ari
direnean, etorkizun oparoagoa dakarkiotte Euskadiri.



2017ko ACICAE Automozio saria

Irizar saritu du Euskadiko Automobilgintzaren Kluste-
rrak, bere "ibilbide globalagatik, fabrikazio integrale-
rantz egindako bideagatik eta autobus elektrikoaren
alde egiteagatik".



2017ko Europako Autobus Eraikitzailearik Onenaren saria

Irizarrek urteko fabrikatzailearik onenaren saria jaso
zuen Busworld Academy Awarden eskutik.



Irizar i8, Coach of the Year 2018

Sektoreko aldizkaririk ospetsuenetako Europako 22
herrialdetako kazetari espezializatuak osatutako
epaimahai batek erabaki du Irizar i8-a saritzea, ibil-
gailuak dauzkan ezin konta ahala ezaugarriengatik
eta ematen duen balio erantsi handiarengatik.



Irizar i6Sa, Espainiako 2017. urteko Autokarrik Onena

Merkatuan iaz aurkeztu zen i6Sak Irizar i8aren ildoan
jarraitzen du, aurkezten den leku bakoitzean arrakasta
lortuz. Irizar i8ak 2016an bezala, Irizar i6Sa "Urteko
Autokar" izendatu dute Espainian 2017an.



Irizar e-mobility, elektromugikortasuneko soluzio osoen serieko produkzioa

Irizar e-mobilityri esker, Taldeak mugikortasun soluzio integralak ematen dizkie hiriei eta herritarrei, bai %100 elektrikoak diren autobusen bitartez, bai energiaren biltegitratze, karga eta trakzioarako beharrezko azpiegitura sistema nagusien bitartez.

Gaur egungo eskari zorroaren ondorioz eta epe motzera begira aurreikusten den zero isurpeneko produktuen eskari handiaren ondorioz, Irizar Taldeak serieko produkzioari ekin dio Adunako lantegian. Lantegi hori hirietarako elektromugikortasun soluzioak landu eta fabrikatzera bideratuta dago zeharo.

Zuzeneko lehen 100 lanpostuak, eta beste hainbeste zeharkako, sortu dira dagoeneko, arlo honetan gure ibilbidea hasteko. Teknologia handiko produktuak produzitzen eta eskaintzen ditugu, eta horrek lehiakor bihurtzen gaitu European.

Irizar e-mobility fabrika berria, berez, saiakuntza banku eta probetarako pista propioak edukitzeko diseinatu da, ekipamenduen fidagarritasuna eta efizientzia bermatzeko eta ibilgailuek daramaten teknologia, osagaiak eta sistemak kontrastatzeko.

Ingurumenarekiko konpromisoari eskainitako atalean, elektromugikortasunari buruzko xehetasun gehiago aurki daitezke.





Irizar ie tram autobusa merkaturatu da

E-mobility autobusen gama zabaldu egin da. Lehendik zeuden 12 metro luzeko modeloei aurten 10.8 metrokoak eta 18 metrokoak gehitu zaizkie. 2017an Birminghamen egindako Coach & Bus azokan munduko primizia gisara aurkeztu genuen Irizar ie tram modeloa, bere teknologiarekin eta pantografo bidez kargatzeko sistema berriarekin.

Irizar ie tram hiri mugikortasunerako soluzio berri bat da pertsona kopuru handiagoa ibil dadin. 18 metroko luzera duten autobusak, %100 elektrikoa den motorizazioarekin eta zero isurpenekin. Edukiera handiko garraio soluzioa da, azkarra, konektatua eta pantografo bidezko karga sistemaduna. Teknologia handiko ibilgailuak dira, eta energiaren biltegitratze, karga eta trakziorako Irizar Taldean garatutako beharrezko azpiegitura nagusi guztiak dituzte txertatuta.

Irizar ie tram 18 metroko autobus artikulatua da. Tranbia baten ezaugarri estetikoak dituen autobusa. Diseinuak zerbitzua erakargarriago bihurtu eta herritarrari erosotasuna eskaini behar diola, ideia horixe du oinarrian. Bere diseinu berritzaileak garraio klasikoaren moldeak hausten ditu, eta hiriaren xarma hobetzera dator.

Ibilgailuak 155 bat lagunentzako edukiera du eta, horregatik, bakarra da autobus elektrikoen artean. Ibilgailuak aulki gurpildunak eramateko bi gune izan ditzake, umeen kotxe bat zabalik eramateko beste gune bat, eta mugikortasun urriko pertsonentzako beste lau leku. Leku horietan geldialdia braillez eskatzeko botoia dago, erreserbatutako tokiak seinalizatuta daude (eserlekuen kolorea eta tamaina), gelditzeko eskatu izanaren soinuak informazioa eta homologatutako seinaleak aulki gurpildunentzako tokietan. Laburbilduz, denontzako ibilgailu irisgarria da.



Etorkizunera begirako Europako proiektuetan parte hartzen dugu

Irizar taldea osatzen duten enpresek aktiboki parte hartzen dute, Europako marka handien eskutik, etorkizunean hiriak eta bidaiarien garraio publikoa elektrifikatzeko Europako proiektu garrantzitsuetan.

Europako proiektuok honako alor hauek barne hartzen dituzte batez ere:

- Gidatze autonomoa
- Efizientzia energetikoa
- Energia biltegitratzea
- Karga azkar eta adimenduneko azpiegiturak
- Konektibitatea – Big data

Kanpo kolaboratzaileekiko konpromisoari eskainitako atalean alor horien gaineko xehetasun gehiago lantzen dira.

Gure konpromisoa PERTSONEKIN

“Taldean lan egiten dugu, eta bezeroarekin eta Taldearen estrategiarekin konprometitutako pertsonak dauzkagu gurean. Efizientzia, komunikazioa, parte hartzea, autokudeaketa eta kudeaketaren bikaintasuna sustatzen ditugu. Ingurune egokiak sortzen ditugu gure proiektuetan dabilzan pertsona guztiek beren talentu, gaitasun eta ilusioen arabera ahalik eta gehien eman dezaten. Giltzarria da etorkizunean arrakasta izateko”.

Enpresako pertsonak aktore gakoak dira, zalantzarik gabe, epe ertain eta luzera emaitza iraunkorrak lortzeko, hala ekonomia arloan nola gizarte eta ingurumen arloetan.


Irizarrek kultura ireki eta gardena defendatzen du, gehieneko zintzotasuna errespetatzen duten enpresa jarduerak arrakasta lortzeko oinarri posible bakarra horixe delako konbentzimendutik abiatuta. Hori dela eta, Irizarrek beti azpimarratu du garrantzi handikoa dela ez bakarrik legedi aplikagarria betetzea, baita gure kultura korporatiboaren parte gisa borondatez hartu ditugun konpromiso, balio eta printzipio etiko batzuk zorrozki zaintzea ere (Nazio Batuen Munduko Itunaren printzipioak barne), konpromiso, balio eta printzipio etiko horiek erreferentzia esparru bat ematen digutelako zintzoki eta ohorez jokatzeko eta legea errespetatzeko, gure erabakiak eta gure eguneroko enpresa lana orientatzea helburu. Ildo horretan, 2017an Jokabide Kodearen lehen zirriborroa egin genuen, eta oraindik ere kode hori lantzen eta ondoren martxan jartzen ari gara. Kodearen bidez, giza eskubideen inguruko funtsezko jardute printzipioak laburbilduko dituen bide orri bat emango zaie Irizar Groupeko pertsona guztiei (ez bakarrik Irizar S.Coop.ekoei), eta hori lagungarri izango dugu eguneroko lanean egokitzen diren lege eta etika arloko erronkei aurre egiteko.

Konpromisoa ENPLEGUAREKIN


Gure misioaren helburua da Irizar Group dagoen lekuetan “haztea eta gure inguruneetan aberastasuna eta enplegua sortzea”. Gure ustez, horixe da egin dezakegun ekarpen sozialik onena eta gure iraunkortasunaren adierazlerik onena. Horrekin koherente izanik, eta grafikoak adierazten duenez, enplegu sorkuntzaren bilakaerak hazkunde jarraituari eusten dio, krisialdiaren unerik txarrenetan ere (2009an bereziki) lanpostuei eutsiz.

Irizar Groupen, ia 1.000 lanpostu sortu dira azken 5 urteetan; hots, %40ko hazkundera izan da, eta 2012an 2.357 pertsona izatetik 2017an 3.300 izatera pasatu gara. Azken urtean, taldeko plantillaren hazkundera 300 pertsonakoa izan da (%10); horietatik 110 Irizar e-mobilityn, elektromugikortasunaren negozio lerroan jarduteko.

Enplegu sorkuntza (Irizar Taldea)



Salmentak (Irizar Taldea)



Ikusten denez, plantillaren bilakaera nabar-men handiagoa da Irizar Groupen salmenten bilakaera baino: %23 bost urtetan (2012ko 505 milioi eurotik 2017ko 620 milioi eurora) eta %7 azken urtean (2016ko 581 milioi eurotik 2017ko 620 milioi eurora). Hori guztia, gaitasuna eta talentua bultzatzeko egindako apustu sendoaren emaitza da, epe luzerako ikuspegiari eta aurre egin beharreko erronkei eutsiz: I+Ga indartu (Creatio), negozio linea berriak (elektromugikortasuna, etab.), eskaeraren handitzea...

Azken 4 urteetan 90 pertsona sartu dira guztira Irizar Groupen. Lanean hasi diren pertsona horietatik 60, goi mailako heziketa zikloetatik datoz, eta gainerakoak, 30, goi mailako lizentziatuak dira, gure gaitasun teknologikoa handitzeko eta I+G proiektuak gauzatzeko, batez ere.

Gure ingurune geografikoan dauden lanbide heziketako ikastetxeekin eta unibertsitate publiko eta pribatuekin zuzeneko lankidetzan dihardugu.

Etengabeko presentzia izaten jarraitzen dugu unibertsitateetako enplegu foro desberdinetan (Deustu, Mondragon, Nafarroa, EAE, etab.). Hori guztia lagungarria da Irizar ezagutarazteko, azken ikasturteetako ikasleei gure proiektuak eta balioak zein diren jakinarazteko eta enpresara talentua erakartzeko.


Uste dugu praktika profesionalak inportanteak direla ikasleentzat, batetik, bereganatu dituzten trebetasunak lantzeko eta, bestetik, enpresa batek nola funtzionatzen duen bertatik bertara jakiteko.

Irizarrek programa bat dauka, Irizar Trainee Program (ITP) izenekoa, zeinaren helburua baita profesionalak lanean hastea arlo teknikoan, produkzioan nahiz marketinean, arlo profesionalean gurekin haz daitezen eta konpainian behin betiko gera daitezen. Industria ingeniari mekaniko, elektriko eta antolaketakoei zuzenduta dago, kualifikazio maila handia eduki arren batere esperientziarik ez dutenei edo urtebetetik beherako esperientzia dutenei.

Praktikak eta bekak ere eskaintzen ditugu unibertsitateko espezialitate desberdinetan, eta karrera amaierako proiektua egiteko aukera ere bai.

Ildo horretan, inguruko ingeniaritza eskolekin lankidetzan dihardugu Student Formularekin. Bikaintasuna bultzatzeko lehiaketa bat da, eta urtero egiten da mundu osoan. Urte osoan plaza bakarreko lasterketa autoak diseinatzeko eta eraikitzen diharduten askotariko lantaldeek hartzen dute parte lehiaketa horretan. Ibilgailu elektriko bat egitea sustatzen dugu, ikasleek beren ezagutza guztiak praktikan jarri ahal izan ditzaten, benetako egoera bat simulatuz, non lantaldeak enpresa bateko atal bat balitz moduan lan egin behar duen.

Lanbide heziketako eskolekin lankidetzan, gurekin praktika profesionalak egiteko aukera ematen diegu goi mailako prestakuntza zikloetako ikasleei.



Batez besteko adina


Urte hauetan sartu diren pertsona berrien eta egon diren erretiroen ondorioz, gure langileen batez besteko adina %2,56 jaitsi da 2017an.

Pertsonen errotazioa

Errotazio ratioak oso txikiak dira Irizarren, eta presente gauden herrialdeetako batez bestekoaren azpitik dabilta. Zalantzarik gabe, gure pertsonen gogobetetzearen eta motibazioaren erakusgarri da hori.

Kontratazioaren kalitatea lehenesten dugu eta ildo horretan baieztatu dezakegunez, langile berri gehienak -%95etik gora- lan kontratu mugagabearekin hasten dira, lehenik enpresako langile gisa eta ondoren kooperatibako bazkide gisa.

Langileak bazkide finko gisa onartzea arautzen duten estatutuen arabera, norbait bazkide finko gisa onartzeko, 3 urteko aldi inoren konturako langile gisa jarduteko ezarritako betekizunak bete beharko ditu, eta ondoren iraupen jakineko bazkide izatera pasatuko da. Egoera horretan gehienez ere 4 urte igaroko ditu, eta bazkide finko bihurtuko da, aldizka egingo zaizkion ebaluazioak gainditu eta gero.




Kontratuen kalitatea

Joera hori 2013tik 2017ra bitartean -batez ere 2014 eta 2015 bitartean- izandako plantilla hazkundearen eta erretiroen ondorio da.

Irizarreko pertsonak, gainera, aintzat hartzeko moduko abantaila eta promozioak dituzte hainbat arlotan, hala nola banku, komunikazio, aseguru, bidaia, erregai, kontsumo eta abarreko kontuetan. Horiek guztiak Kontseilu Errektorearen bitartez bultzatu eta negoziatzen dira.

■ Kontratu mugagabeak plantilla osoarekiko
■ Bazkidegai aldiko kontratatudunak





Konpromisoa KOMUNIKAZIOAREKIN eta PARTE HARTZEAREKIN

Gure ustez barruko komunikazioa da kultura korporatiboa transmititzeko eta pertsona guztien integrazioa, gogobetetzea, motibazioa eta inplikazioa lortzeko bidea, gero eta pertsona konprometituagoak edukitzeko eta haiei eragiten dieten ekintzen eta erabakien partaide bihurtzeko.

2016an egindako hausnarketa estrategiko sakonaren ondoren (Irizarco zuzeneko eta zeharkako langileen lantalde guztiak ordezkatzeko zituzten pertsonen eskutik), 2017an martxan jarri da hausnartutakoa, ukitutako arlo desberdinetako pertsonen parte hartzearekin.

2016an barne komunikazioko kanalen analisitik ondorioztatutako hobekuntzak martxan jarri dira 2017an.

Konpromisoa DIBERTSITATEAREKIN eta BERDINTASUNAREKIN

Aukera berdintasuna, diskriminaziorik eza eta dibertsitatearekiko errespetua babestu nahi ditugu; horixe da, hain zuzen, pertsona berriak hartzeko dugun politikan jasotzen dena.

Gure estatutuek zera jasotzen dute: “Ideia politikoak, sindikalak eta erlijiosoak ez dira inor baztertzeko arrazoi izango (ez eta hautagaiaren arraza, hizkuntza, sexua eta egoera zibila ere), printzipio eta antolaketa kooperatiboaren eta Irizar S. Coop.en helburu, konpromiso, balio eta printzipioen kontra nabarmen jotzen dutenean izan ezik”.

Genero berdintasunari dagokionez, azpimarratzekoa da Irizarren sartzen diren pertsona berri guztiek baldintza berberak dituztela -lansariak barne-, baldin eta erantzukizun berdineko lanpostuak betetzen badituzte.

Gure instalazio guztiak desgaitasunen bat daukaten pertsonen irisgarritasunera moldatzeko moduan horniturik daude. Eta ildo horretan, gure filosofia da minusbalotasunen bat duten pertsonak hartzen edo kontratatzen dituzten enpresa edo kolaboratzaileekin lan egitea, Irizarren ekoizpen prozesuan sartuta.



Konpromisoa PRESTAKUNTZAREKIN

Ezagutza handitzea beharrezkoa da gure produktu eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko; baita epe luzera gure efikazia eta efizientzia areagotzeko ere.

Ikusita gure merkataritza, diseinu eta garapen jarduerak, eta baita produktuak egin eta zerbitzuak emateari dagozkionak ere, gero eta konplexuagoak direla, diziplina anitzeko eta balioaniztasun prestakuntza plan zorrotzak egiten ditugu. Prestakuntza horren zatirik handiena enpresa barnean egiten dugu.

Azpimarratzekoa da, halaber, Irizar Taldeak herrialde desberdinetan daukan ekoizpen planten eta enpresen artean dagoen pertsona fluxu etengabea, planteatutako ildo estrategikoetan eta lan ildoetan egiten diren jarduera eta ekintzetan sinergiak bultzatu, sustatu eta aprobetxatzeko, eta pertsonon eza-gutza eta gaitasunak areagotzeko, konpainiaren etorkizuneko arrakasta bermatuz.

Dena dela, barneko prestakuntza planen osagarri, kanpoko profesionalek prestakuntza programak lantzen dituzte, ondoko bilakaera taulan jasotzen denez.

Prestakuntza		
Prestakuntza orduak / Pertsona kopurua		
	Orduak	Pertsonak
2013	5779	210
2014	6551	264
2015	4701	166
2016	4546	222
2017	4119	236

Irizarren kanpoko prestakuntzan dauden bilakaera erpinak ulertu ahal izateko, nabarmentzekoak dira azken urteetan egin diren ohiz kanpoko prestakuntza ekintzak:

- o 2013: Irizarco ibilgailu integralaren sistemak
- o 2014: Datuen kudeaketa eta diseinu sistemak, baita lehen sorospenen gaineko ikastaroak ere
- o 2015 eta 2016: DAF motorra, zeina gure autokar integralen oinarri motorra baita



Konpromisoa

LAN KONTZILIAZIOAREKIN


Lanaldia murriztea ahalbidetzen dugu, edo bestela, bizitza profesionala eta bizitza pertsonala uztartzeko ordutegi malgutasuna sustatzen dugu. Lanaldia murrizteko eskaera guztiak (3, 4, 5 edo 6 ordu) Kontseilu Errektoreak kudeatzen ditu.

Konpromisoa

SEGURTASUNAREKIN eta OSASUNAREKIN

Lan arriskuen prebentziorako sistema bat daukagu. Sistema horretan segurtasuna lehenesten da ku-deaketaren gainerako gakoan aurretik, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jartzen dira. Istri-puen eta intzidenteen %100 aztertzen dira. Alor horretan, 2017an 880.000 € baino gehiago inbertitu dira, eta segurtasuna areagotu egin da, bereziki ondorio larriak ekar ditzaketen arriskuak murriztuz.

Hala ere, merkatuaren eskaerari aurre egiteko lan karga handitu dela eta, langile berriak sartu direla eta, eta fabrikatutako ibilgailuek 2016an fabrikatutakoan aldean daukaten konplexutasuna dela eta, area-gotu egin dira maiztasun indizea (istripu kopurua, sartutako lanorduekiko), intzidentzia indizea (istripu kopurua, enplegatu kopuruarekiko) eta baja ekarri duten istripuak. Gure asmoa da indize horiek jaisten jarraitzea etorkizunean, Irizarreko langile guztien inplikazio argiari esker.



Baja ekarri duten lan istripuak		
Urtea	Langileak	Baja ekarri duten istripuak
2013	702	79
2014	754	70
2015	786	70
2016	778	67
2017	791	77

Erregularitasunez egiten diren segurtasun eta osasun jarduera guztiez gain –aurreko memorietan xeheki azertu ziren– 2016an hartutako neurrien artean hauek dira azpimarratzekoak:

- Sabaiak fabrikatu eta muntatzeko gunean egindako inbertsioak, lurrungailuak instalatu eta horrela erosotasun termikoa lortzeko.
- Lixatzeko robot automatan egindako hobekuntza, kaxak lixatzeko lanak egiteko pintura gunean.
- Langile guztiei eman zaizkien babes baliabideen bitartez, pintura ataleko baldintza higienikoen hobekuntza, eragile kimikoezko esposizioa balio hautemanezinetara txikituz.
- Bi zubi garabiren instalazioa, autokar integralen jasoketan manipulatzeko diren kargetarako egokiagoa den ahalmena izateko
- Kolaztatzeko kabina baten instalazioa, erregistro tapak fabrikatzeko

Pertsonen ongizateari erantsitako balio gisa, Irizarreko instalazioan baditugu geure zerbitzu medikoa eta fisioterapia zerbitzua; hori, zalantzarik gabe, lagungarria izaten ari da jarrera ohiturak hobetzeaz aholku emateko eta pertsonen lesioak prebenitzeko.

Horrekin guztiarekin batera, enpresako pertsonen artean bizi ohitura osasungarriak sustatzeko lanean dihardu Irizarrek eten barik. 2017an aipagarri:

- Enpresako jangelan, menuaren eta sukaldaritza metodoen hobekuntza (gatza, olio, frijitutak etab. murriztea). Horrek harrera bikaina izan du pertsonen artean, eta jangela zerbitzuan nabarmen handitu da jankideen kopurua.
- Elikadura ohitura onen sustapena. Aipatzekoa da honako hauen kontsumoaren sustapena:
 - entsalada, izan ere, enpresako jangelan entsalada bufeta jarri da martxan, eguneko menuaren osagarri gisa;
 - fruta, zeina atsedean guneetan langile guztiek eskuratzeko moduan jarri baita.
- “Bizimodu osasungarria izateko ohituren programa” baten barruan ikastaroak egitea (sedentarismoari stop, estresa nola bideratu, zahartzeari nola aurre egin, etab.).
- Jarduera fisikoaren sustapena, pertsonak Donostian Irizar ordezkatu eta honako hauetan parte hartzeko aukera babestuz: Enpresen Lasterketa eta Busti Zaitetz (igeriketa).



Gure konpromisoa KANPOKO KOLABORATZAILEEKIN

“Gure hornitzaileek eta kanpoko gainerako kolaboratzaileek gure marka eta lehia posizioa hobetzen laguntzen diguten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna daukate. Helburu hori lortu behar dugu eta beti etikaz eta profesionaltasunez tratatu behar ditugu”.

Gure enpresa estrategiarekin bat etorritz, kanpo kolaboratzaile desberdinekiko aliantzek gero eta garrantzitsuagoa den rola jokatzeko dute Irizarren lehiakortasun iraunkorrean.

Kanpo kolaboratzaile eta hornitzaileekin ezarriak ditugun eta atal honetan jasota geratu diren lan-kidetza mota desberdinez gainera, pertsonen eskaintako atalean unibertsitateekin eta prestakuntza zentroekin egindako hitzarmenak jasotzen dira; gizarteari eskaintako atalean, berriro, nazio eta nazioarte mailako ingurune sozialean ditugun hitzarmenak biltzen dira.

Autokarrak fabrikatzeko hornitzaileak

Hornitzaile nagusiei dagokienez, “autokar bakoitzeko kudeaketa” dei daitekeena ezartzen da; izan ere, hornitzaile horiek txertatzen dira halako eran non zuzenean kontsulta dezaketen, Irizarren kudeaketa sisteman, Irizarrentzako beren produkzioaren planifikazioa, egin gabe dauden eskariak, jasotako merkantzia eta bezeroaren etengabeko berrikuspenak berretsiko espezifikazioen inguruan eta autokar bakoitzari elkartutako artikulak.

Hornitzaileekiko integrazio maila altua bultzatzen dugu gure produktu eta prozesuen garapenean, ezagutzak, espezializazioa, teknologia eta baliabideak mobilizatuz eta trukaturik. Aktore desberdinen esperientzia eta estrategiak aprobetxatuz, aliantza efikazak sustatzen ditugu. Halako aliantzen erakusgarri, horra hor, aipagarri, autokar integralentzako elementuen hornitzaile gakoekin egindakoak, izan ere, aliantza horiek gabe ezin izango genukeen sendotu ibilgailu horien alde egin genuen apustu estrategikoa.



Nabarmentzekoa da ingurunearekin hartua dugun konpromiso handia, izan ere, gure material eta zerbitzu erosketen %15 gure probintziako (Gipuzkoa) enpresei egiten zaizkie.

Arlo sozialean, nabarmentzekoak diren kolaborazio egonkorak ditugu honako hauekin:

KATEA:

Gipuzkoan desgaituak gizarteratu eta lan munduratzeari xede duen erakundea. 45 pertsonak lan egin dute Irizar S.Coop.entzat jarduera berezietan 2017an, eta hori gure plantillaren %5,7ren baliokidea da..

IKASLAN:

Fundazio honen xedea gazteen hezkuntza, prestakuntza eta garapen tekniko eta soziala da, batez ere Goierriko eskualdeari dagokion lurralde eremuan. Azpimultzoak eta pieza metalikoak zerbitzatzen dizkio Irizarri.

GUREAK:

Erakunde honek Gipuzkoako desgaituentzako lan aukerak kudeatzen ditu. Iluminazio ekipamendueta-rako muntaketa lanak egiten ditu.

HAZLAN:

Gizarteratze enpresa honek Bidasoako eskualdean gizartean txertatzeko zailtasunak dituzten pertso-nekin dihardu. Jostuntza lanak egiten ditu.

Erosketen kudeaketa gaur egun funtsezko elementua denez errentagarritasuna eta lehiakortasuna bermatzeko, Irizar AERCEko kide da (Erosketa, Kontratazio eta Hornikuntza Elkarte Espainian). AERCE, izatez, enpresa ertain eta handietako erosketen arduradunak biltzen dituen elkarte profesional bat da. AERCEren xedea, tekniken inguruko sustapen, hedapen eta prestakuntza ez ezik, metodologia egokien aplikazioa ere bada, enpresako erosketen, kontratazioaren eta hornikuntzaren arlo osoa zuzen eta eraginkorki kudeatzeko.

Aliantza estrategikoak gure salmenta eta saldu ondoko sarerako

Aliantzak dauzkagu mundu osoko merkatu espezifikoetan bai banaketa bai bezeroari gertuko zerbitzua ematea eskaintzen diguten banatzaileekin.

Gainera, gure autokar integralak merkaturatzeko salmenta eta saldu osteko sare bat sortu dugu Europan eta Ameriketako Herrialde batzuetan gure sare propioa daukagu, eta beste batzuetan, tokiko enpresekin egindako aliantzen bitartez dihardugu.

Sartu gure salmenta eta saldu osteko sarera



Mugikortasunaren geroa zehaztuz

Bai lehendik dauzkagun produktuak hobetzeko bai produktu berriak garatzeko, eta tartean produktu saiakuntzak eta homologazioak egiteko, proiektuetan dihardugunean gure ezagutza eta teknologia osatzen laguntzen diguten teknologia zentroekin ibiltzen gara lankidetzan; zentro horien artean: CEIT, CIDETEC, CIKATEK, IDEKO, IDIADA, INSIA, IK4-AZTERLAN, IK4-LORTEK, LEARTIKER, TECNALIA, VICOM-TECH, etab.

Lankidetzan lan hori lagungarri zaigu gure bezero eta bidaiariei abangoardiako soluzioak eskaintzeko, hala segurtasunean nola konfortean, errentagarritasunean, etab.

Ekoberrikuntzari eskainitako atalean ikus daitekeenez, ingurumenarekiko hartua dugun konpromisoaren barruan, ingurumenari dagokionez iraunkorrak diren autokarren fabrikaziorako teknologia berriak ikertzen ari da Irizar, eta horretan kanpoko kolaboratzaileek ere parte hartzen dute.

2013an CREATIO (Irizar Innovation Center) jarri genuen martxan. Irizar Taldearen ikerketa eta garapen zentroa da Creatio, eta xede hau dauka: ikerketa aplikatuaren gaitasunak indartzea eta Taldeko enpresa desberdinen arteko lankidetzaren bidez garapen teknologikoa sendotzea, hala markako produktu propioetan nola karrozeriaren osagai nagusietan. CREATIOk gidatzen dituen proiektuetan ere kanpo eragileek kolaboratzen dute.

Irizarrek, Taldea osatzen duten beste enpresa batzuekin batera, aktiboki parte hartzen du, Europako marka handien eskutik, etorkizuneko hirien eta bidaiarien garraio publikoaren elektrifikaziorako garrantzi handia duten Europako proiektuetan.

Gidatze autonomia: AUTOMOST eta AUTODRIVE

AUTOMOST proiektuaren helburua da ibilgailuen automatizazioa ahalbidetuko duten teknologiak garatzea, hiri eta industri garraioko aplikazioetan, eta horrela efizientzia, segurtasuna eta iraunkortasuna nabarmen areagotzea. Espainiako Ekonomia Ministerioaren CDTIren (Industriaren Garapen Teknologikorako Zentroa) programak finantzatzen du.

Europar Batzordeak finantzatzen du AUTODRIVE programa, automozioaren arloko mundu osoko 40 enpresak osatutako partzuergo batek parte hartzen du, eta enpresak, hornitzaileak, fabrikatzaileak eta ikerketa zentroak elkartzen ditu, ekosistema pan-europar bat sortzeko, gidatze autonomorako estandarrak abiarazteko eta osagaiak eta azpi-sistemak eskaintzeko behar besteko masa kritikoarekin.

Efizientzia energetikoa: EBSF2 (European Bus System of the Future 2)

Europar Batzordearen H2020 programak finantzatutako proiektu honek soluzio desberdinak garatzen eta balidatzen ditu, era antolatuan autobus sistemen efizientzia eta autobus elektrikoen kontsumo energetikoen murrizketa konbinatuz. Gaur egun efizientzia energetikoko teknika aurreratuak ibilgailu elektrikoetan frogatzeko lana egiten ari dira.

Energia biltegitratzea: SADE (Safe Storage Systems)

Proiektu hau Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak kofinantzatu du, Ikerketa Zientifiko, Garapen eta Berrikuntza Teknologikoko Plan Nazionalaren barruan. Battery-pack soluzio bat ikertu eta garatzea du xede.

Karga azkar eta adimenduneko azpiegiturak:

ASSURED (Karga azkar eta adimenduneko azpiegitura ibilgailu handietarako)

ASSURED proiektuaren xedea da «Karga azkarreko azpiegituran ibilgailu komertzial elektrikoak integratzea», Green Vehicle programaren barruan. Lana EBko 12 estatu kideetako 40 parte hartzaileko partzuergo bat egiten ari da.

Helburu nagusia da herritarren, operadoreen eta amaierako erabiltzaileen beharrak aztertzea, ibilgailu elektrikoek belaunaldi berriaren ezaugarriak eta betekizunak ondorioztatzeko. Horrenbestez, lortuko diren emaitzek balioko dute kostuak hobetzeko, boltaje handiko karga modularra egiteko sistemen belaunaldi berria garatzeko, ibilgailu elektrikoetarako, eta karga kudeatzeko estrategia berritzaileak garatzeko.

Konektibitatea - Big data: eFleet

Gaur egungo teknologiarekin hiri autobusaren garraioa elektrifikatzeko helburuak lorgarriak ez direlako premisatik abiatuz, Irizar Taldeak eFleet proiektua planteatu du eMobility soluzioak (%100 elektrikoak diren autobuse-tan oinarritutako hiri garraio publikoa), modularrak, malguak eta eskalagarriak sortzeko aukera emango duten teknologia eta estrategiak garatzeko, autobus elektrikoek flota ertain/handien zabalkunde masiboa bideragarri egiteko, sare elektrikoan inpaktua minimizatuz eta hasierako kostuak eta kostu operatiboak murriztuz.

Beste kolaborazio batzuk ingurunearekin

Kontuan hartzen badugu Michael F. Porter-en arabera klusterrak direla "geografikoki gertu dauden enpresa eta erakunde taldeak, jarduera alor konkretu batean dihardutenak eta elementu komunen eta osagarritasunen bidez lotuta daudenak", aipatzekoa da Irizar hauen barruan dagoela:



ACICAE erakundearen misioa zera da: euskal automobilgintzaren sektorea dinamizatzea, euskal enpresen arteko lankidetzak ahalbidetuz, sektorean nabarmentzen diren erroka handiei baterako erantzuna eman ahal izateko. Europan eratu den automobilgintzako lehen klustertzat jotzen da. 1993an eratu zenez geroztik, azkar-azkar eboluzionatu du, eta horrek ekarri du azken hogeita bost urteetan euskal automobilgintzaren sektorearen fakturazioa seikoiztea. 18.390 milioi euro eta 85.000 pertsona mundu osoan.



MLC ITS Euskadi, berez, irabazi asmorik gabeko elkarte pribatu bat da. Elkartearen helburua da Euskadin logistikan eta hornikuntza katean, azpiegiturretan eta mugikortasunean -hala pertsonena nola salerosgaiena- lan egiten duten bazkide, enpresa eta eragileen lehiakortasuna sustatzea.

Euskadin sektore honetan diharduten enpresa eta erakundeek 4.882 milioi euro eta 31.309 pertsona mugitzen dituzte.



2017an ekin genion gure elkarteari Goierri Valleyren trakzio enpresa gisa. Berez, Goierri Valley industri aliantza bat da, Gipuzkoako Goierri eskualdearen (bertan dago Irizar S.Coop.) eraldaketa industriala helburu duena. Horretarako, elkartutako enpresen lankidetzak erreal eta aktiboa bultzatzen da, ezagutza partekatuz eta berrikuntzan arituz, gure ingurune hurbilaren etorkizuneko lehiakortasun industriala eta iraunkortasuna bermatzeko.

Aliantzan sartuta dauden enpresetan 5.800 langile dabilta guztira, zeinak balbulagintzan, mugikortasunean, jasoketan, energian, motor elektrikoetan, garraioan eta makina-erremintan diharduten. Ibarreko gaitasunak zein diren jakiteak aukera ematen du produktuen gama zabala eta industria soluzio integralak bildu, garatu eta kudeatzeko.



Gure konpromisoa INGURUMENAREKIN

1998az geroztik gaude ingurumenarekin konprometituta; izan ere, urte hartan Irizar lehena izan zen ISO14001 ziurtagiria lortzen autokar fabrikatzaileen artean.

Irizarren ingurumen politikako printzipio nagusiak honako hauek dira: CO2 eta sustantzia kutsatzaileen isurpenak progresiboki murriztuz joatea; produktuen diseinuan ingurumen irizpideak sartzea; eta bertako pertsonen eta kolaboratzaileen artean ingurumena errespetatzeko jarrera sustatzea.

Ondoren, ingurumenarekin hartua dugun konpromisoa nola gauzatzen den xehatuko dugu, hala ekoberrikuntzaren alde egin dugun apustuan nola gure jardueran eta gure autobus eta autokar ekologikoetan (elektrikoak eta hibridoak). Talde barruan bultzatzen den elektromugikortasun negozioa ingurumena zaintzearen eta herritarren ongizatea bilatzearen adierazlerik esanguratsua da.

EKOBERRIKUNTZA

2017an, Irizarrek oinarriak jarri zituen autokarrak fabrikatzeko teknologia eta material berriak ikertu eta garatzeko, ingurumen aldetik iraunkorrak diren autokarren bidez sektorean ekodiseinuaren abangoardian jartzeko. Eta hori lortuko da, hein batean, batetik, lehengo teknologia eta materialen lekuan ingurumenarekin errespetutsuagoak diren beste batzuk jarritz, eta, bestetik, materialok arinduz, atmosferari kalte egiten dioten gasen kontsumoa eta isuriak murrizteko.

Ingurumenaren Zaintza Estrategikoa

Irizarren negozio prozesuetan (diseinua eta berrikuntza, erosketak, salmentak...), estrategian eta erabakietan ingurumenaren adierazlea txertatzea beharrezkoa da gure lehiakortasun iraunkorrari eusteko edo lehiakortasun hori handitzeko. Txertaketa hori enpresaren testuinguruaren ezagutzan eta ingurumenaren arloan interesa duten aldean espektatibetan oinarritu behar da. Ezagutza hori hartzeko erabiltzen den mekanismoa Ingurumenaren Zaintza Estrategikoa da.



2017an Irizarrek Ingurumenaren Zaintza Estrategikoari buruzko azterlan bat egin zuen iraunkortasunari eta ingurumena errespetatzeari buruzko ingurumen politikan zehaztutako irizpideekin koherentzia jartzeko; baita lehiakideen egoera eta Europan sektoreak ematen dituen aukerak ezagutzeko ere. Hori lagungarri gertatu zaigu enpresak ingurumen arloan izan ditzakeen aukerak eta mehatxuak identifikatzeko, eta aukera eta mehatxu horien ondoriozko arriskua zuzen kudeatzeko erabakiak hartu eta ekintzak abian jartzeko.

Hona hemen lortu nahi izan diren helburuak:

- Bizi Zikloaren Analisiari (BZA) eta Produktuaren Ingurumen Adierazpenari (PIA) dagokienez, lehiakideek daukaten ingurumen estrategia aztertzea.
- Elektromugikortasunaren azken joerak analizatzea.
- Erosketa Publiko Berdeari buruzko alertak.
- Karga sistemei eta bateriei buruzko nobedadeak.
- Erabiltzen Ez diren Ibilgailuen (EEI) inguruko legeei buruzko nobedadeak identifikatzea.

Produktuaren Ingurumen Adierazpenerantz (PIA)

2017an, Irizarrek erabaki du aurrerapauso bat egitea gardentasunerantz eta produktuaren ingurumen inpaktuaren azterketarantz. Fabrikatzen eta merkaturatzen duen produktuari dagokionez lehiakide handiak daukanez gero, Irizarrek erreferente bihurtu nahi du orain ingurumenaren alorrean, izan ere, orain arte ez da egon europar lehiakiderik PIA edo produktuaren ingurumen adierazpen bat argitaratu duenik. Halako ekoetiketa bat egiteko beharrezkoa da PKA bat (Produktu Kategoriaren Arauak). Dokumentu hori 2017an egin zuen Irizarrek, izan ere, Europan sektoreko lehena izan zen halako adierazpenen bidean aurrerapausoa egiten.

2017an Irizarrek autokar baten Bizi Zikloaren Analisia (BZA) ere egin zuen. Analisi horretan eta beste informazio garrantzitsu batean oinarrituz eta araua betez, Irizarrek produktuari/zerbitzuari buruzko ingurumen informazio bat –EPD delakoa– lantzeari ekingo dio 2018an. Ingurumen adierazpen ziurtatu batez ari gara, ISO 14025 (III. Motako Ingurumen Adierazpenak) nazioarteko arauaren arabera lantzen dena. Produktuaren Ingurumen Adierazpenek (PIA) dimentsio berri bat eranstean diote merkatuari, produktuek eta zerbitzuek ingurumenean duten eraginaren norainokoaz informatuz. III. Motako Ekoetiketa Programaren testuinguruan sortzen eta erregistratzen dira, EPD nazioarteko sistemaren pean. EPDek abantailak ematen dizkiete bai adierazpena sustatzen duten erakundeei bai Produktuaren Ingurumen Adierazpenak (PIA) jasotzen duen informazioa erabiltzen dutenei.

Produktuaren ingurumen adierazpenak beste sektore batzuei aplika dakizkieke, hasi automobilgintzatik eta elektronikaraino; gainera, produktu bat ingurumenaren ikuspegitik baloratzeko modu zientifiko eta neutrala eskaintzen dute, honako alderdi hauei dagokienez:

- BZAren datuak, inpaktu kategoria gisa; esaterako, beroketa globalaren potentziala edo baliabideen agortzea.
- Bizi zikloaren beste informazio batzuk, esaterako, baliabide fosilei nahiz berriztagarriei dagozkien kontsumo energetikoak etapa bakoitzean.
- Fabrikazioko isurpen kutsatzaileei nahiz substantzia arriskutsuei buruzko informazioa.
- Bestelako informazio gehigarria; esaterako, ingurumen alderdiekin lotutako produktu prestazioak (adibidez, isolamendu termikoa), erakundean ingurumena edo ekodiseinua kudeatzeko sistemak, produktuaren bizitza baliagarriaren amaiera kudeatzeko modua, etab.

Aurrerago egingo ditugun iraunkortasun memorietan, “Ingurumenari dagokionez iraunkorrak diren autokarren fabrikaziorako teknologia berrien ikerketa proiektuan” egindako aurrerapena aztertuko dugu, hortik etorkizuneko gure PIA (Produktuaren Ingurumen Adierazpena) etorriko baita.



Gure JARDUERA

Aurrera egiten ari gara efizientzia energetikoan, hondakinen tratamenduaren optimizazioan eta gure jarduerak eta gure produktuek sortutako ingurumen eragina murrizteko bidean. Ondoren, ingurumen adierazleek izandako eboluzioa xehatuko dugu.

Baliabide naturalen kontsumoa

Urtea	Ura (m3/ekoitzitako autokarra)	Energia elektrikoa (kWh/ekoitzitako autokarra)	Gas Naturala (kWh/ekoitzitako autokarra)
2013	9,29	6292,81	9090,48
2014	9,72	5655,24	7914,71
2015	10,68	5240,75	8201,92
2016	8,98	4832,85	8184,06
2017	9,60	4810,74	8207,32



Ur kontsumoa:

2016an prozesuan ekipamenduak berritzeko eta pertsonengan ur erabilera arduratsua sustatzeko gauzatutako ekintzei esker murrizketa handia izan bazen ere, 2017an ikusten da hazkunde txiki bat egon dela, zeina jangela zerbitzuan izandako erabiltzaile hazkundearekin lotuta dagoen.

Gas naturalaren / energia elektrikoaren kontsumoa:

Ikusten denez, 2017ko kontsumoa 2016koaren oso antzekoa izan da, 0,28ko hazkunde txiki bat baino ez da egon eta. Uste dugu emaitza hori gas kontsumoa egonkortu izanari zor zaiola, nahiz eta gama altuko autokarren eta ibilgailu birlakatuen (ibilgailuari aplikatzen zaizkion laka geruzak) eskariek -horrek berekin dakar kabinetako lehorte denbora luzatzea- gora egin. Hori guztia, 2017an efizientzia energetikoan egindako hobekuntzei esker. Eboluzioa oso positiboki baloratzen da, hartutako neurrien eraginkortasuna berresten baita.

Baliabide kimikoen kontsumoa

Urtea	Pintura kontsumoa/ gainazal tratatua (kgr/m2)	Disolbatz. kontsumoa/ gainazal tratatua (kgr/m2)
2013	0,404	0,231
2014	0,347	0,196
2015	0,493	0,163
2016	0,450	0,163
2017	0,479	0,139



Disolbatzaile kontsumoa:

2017an disolbatzaile kontsumoa %14,85 murriztu da; horrek berretsi egiten du konposatu organiko lurrunkorrak murrizteko egindako lan ona. Aipatutako kontsumoak azken urteetan izan duen bilakaera edo joera aztertuz gero, ikusten da bilakaera hori oso positiboa izaten ari dela eta poliki-poliki murriztuz doala, 2007az geroztik disolbatzaileak murrizteko xedez lantzen ari diren plan desberdinen ondorioz.

Pintura kontsumoa:

Disolbatzaile kontsumoan ikusi dugunaz bestela, 2017. urtean %6,38 egin du gora pinturaren kontsumoak 2016arekiko. Horrek erakusten du aipatutako produktibitate faktore desberdinak gorabehera (gama altuko ibilgailuak, birlakatuak, integralen produkzioa), zeintzuen ondorioz produktu eta baliabide kontsumoa hazi egin den -horien artean, pintura kontsumoa-, pinturak kudeatzeko planaren ezarpenen egindako lana argi ikusten da.

Hondakinen sorkuntza (kgr/produz. autokar)

Urtea	Hondakin arriskutsuak	Hondakin ez-arriskutsuak
2013	241,40	1191,07
2014	234,68	1184,57
2015	286,37	1236,19
2016	285,30	1211,22
2017	306,75	1157,06



Hondakin arriskutsuen sorkuntza:

Autokar bakoitzeko hondakin arriskutsuen sorkuntza ratioa, 2017an, %7,52 igo da 2016ko ratioarekiko. Igoera hori lehenago azaldu ditugun askotariko faktoreen ondorio da. Faktoreek zuzeneko eragina izan dute produktuaren kontsumoaren hazkundera, eta, ondorioz, baita hondakinen hazkundera ere. Enpresa barnean logikotzat jo da hazkundera (kalitate faktoreak, etab.) eta espero izatekoa da autokar modelo berriak eta eritmoak finkatuz joan ahala kontsumoak eta hondakinak egonkortuz joatea.

Hondakin EZ arriskutsuen sorkuntza:

Plantaren irudi proiektutik eratorritako hobekuntzei lotutako jaitsiera txikia. Hobekuntzak, besteak beste, hondakinak murriztera bideratu dira, kontsumoak optimizatuta eta ontzi nahiz bilgarri itzulgarriak diseinatuta.

Autokar HIBRIDOA

Hiri handietan eta horien eraginpeko eremuetan garraioak egun dituen eta etorkizunean izango dituen beharrezanez erantzun iraunkor eta ekoefizientea emateko garatu du Irizarrek produktu gama hau. Ahalegin berritzaile honen emaitzari esker, aldirietako II. motako autokarra merkaturatu zuen Europako lehen enpresa bihurtu zen Irizar 2016an.

Irizarrek garatu duen teknologia, teknologia hibrido paraleloa da. Bi motorren konbinazioa da: azken belaunaldiko diesel edo biodiesel motor bat (Hydrotreated vegetal oils=landare olio hidrotratatuak) eta elektrizitate sortzaile diharduen motor elektriko bat, beharren arabera bakarka edo batera jardun dezaketenak eraginkortasun eta errendimendu handiena lortzeko.

Errekuntzako ohiko autobus eta autokarren aldean, 157 bat gr CO₂ gutxiago isurtzen du kilometroko, eta gutxi gorabehera 2,5 tona CO₂ gutxiago isurtzen du bere bizitza baliagarri osoan (urtean 100.000 km gutxi gorabehera, 15 urtean). Era berean, landare jatorria duen azken belaunaldiko biodiesela erabiltzen uzten du (HVO), zeinak sulfuroen isurpena desagerrarazten duen.

Ingurumen arloko hobekuntzez gain, 2017an egiaztatu dugu gure autokar hibridoek %20 murrizten dituztela kontsumoak diesel autokar konbentzionalen aldean, eta horrek aukera ematen die bezeroei gasoliotan urtean 6.000 l aurrezteko. Datu horrek, era berean, CO₂ isurpenei eragiten die, urtean 170.000 gr inguru murrizten baita.

%100 ELEKTRIKOA den hiri autobusa

Irizarren autobus elektrikoak erabat seguru, fidagarri eta errentagarriak dira, eta ezin konta ahala aukera eskaintzen dituzte operadoreetara moldatzeko, ibilgailuaren bizitza baliagarri osorako zerbitzu integrala eta mantentze zerbitzua bermatuta. Teknologia propioarekin garatu eta fabrikatuta eta bizitza zikloaren ikuspegia emanda, Taldeak berrikuntzaren alde egindako apustu estrategikoaren emaitza dira autobus elektrikoak. %100 elektrikoa den ibilgailua efizientzia energetikorik handiena lortzeko diseinaturata dago, gutxiago kontsumitzeko, eta ibilgailuaren autonomia ahalik eta handiena lortzeko; baita bizitza zikloaren amaieraren kudeaketa optimoa lortzeko ere.

Irizar ie autobusak eskakizunik zorrotzenak betetzen ditu segurtasun aktibo eta pasiboari dagokienez, izan ere, ez iraultzeko R.66 segurtasun araudia betetzen zuen lehen autobus elektrikoa izan zen merkatuan.

Donostian eta Bartzelonan % 100 elektrikoak eta zero isurpenekoak diren lehen autobusak entregatu eta hiru urtera, egun harrotasunez esan dezakegu Europako hirietako garraio publikoaren zerbitzua elektrifikatzeko prest gaudela. Horretarako, mugikortasun soluzio globalen aukera zabala daukagu, bezero bakoitzaren beharren neurrira, Irizar Taldean goitik behera garatutako abangoardiako teknologia duten produktu eta zerbitzuekin.

Lehen 25 unitateak Europako hamar hiritan dabilta martxan, eta dagoeneko egiaztatuta dago beraien autonomia, efizientzia eta fidagarritasuna.

Irizar Taldea ohartu da mugikortasunaren negozioaren eboluzioak, hein handi batean, elektromugikortasunerantz jo duela, eta 2017an Europako lehenengo elektromugikortasun planta eskusiboa sortu du, 180.000 metro koadroko azalerarekin. Planta horretan %100 elektrikoak diren autobusak, ibilgailu industrialak eta horien osagai eta sistema nagusiak fabrikatzen dira. Goi mailako teknologiako produktuak dira, Europatik lehiakorrak izatea ahalbidetzen digutenak. Gainera, Irizarren laborategietan, saiakuntza bankuetan eta ibilgailuan bertan testatutako teknologia da. Teknologia honek elektrifikazioan inplikaturata dauden sistemen arteko energia fluxua optimizatzen du; sistema horien artean: propulsio sistema, baterien biltegiatzea, EBS Wabco-a eta ekipamendu osagarria.



Funtsezkoa lehenesten dugu

Mundua energia iraunkorerrantz eramaten lagundu nahi dugu, eta horrekin berotegi efektuaren eta haren ondorioen aurka egin.

Ie bus-aren teknologia elektrikoari esker, ez da ez berotegi efektuko gasik (GEI) ez substantzia toxikorik (NOx eta partikulak esaterako) zuzenean isurtzen, autobusa hirigunean dabilenean. Zuzeneko %0 isurpen hiri ingurunean.

Irizar ie bus-ek hiri mugikortasunerako soluzio osasungarri, iraunkor eta ekofizientea eskaintzen du, eta hiriko garraioaren gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuten die. Biltegitatzeko ahalmen eta estrategia berriei esker, 12 metroko ibilgailuak zein ibilgailu artikulatuak benetako alternatiba bihurtzen ari dira errekuntzako ibilgailu termikoen ordez.

Ie bus-ek oso karbono aztarna txikia uzten du: 8,45 gr CO2 eq/km.p (egindako kilometroak bidaiariko). Errekuntzako ohiko autobus batekin alderatuz gero, 800 tona CO2 isurtzea saihesten da autobusaren bizitza zikloan zehar. Baterien elektrizitate kontsumoari lotutako isurpenen eta erregaien errekuntzari lotutakoen artean dagoen aldeari dagokio datu hori. %86 karbono aztarna gutxiago diesel autobus konbentzionalen aldean.

Isiltasunaz gozatu

Ie bus-aren teknologia elektrikoak errekuntza motorraren zarata ezabatzen duenez, kanpora igortzen duen soinua, bai geldialdian bai abiaraztean, nulua da oinezkoentzat (0 dBA); errekuntza konbentzionalerako autobus batek, berriz, 68 dBA-ko zarata igortzen du batez beste. Zirkulazioan, Irizar ie bus-aren soinuen igorpena %20 murrizten da.

2014an Koucky & Partners A.B konpainia suediarrek “Quieter buses socioeconomic effects” izeneko azterlana egin zuen Suedian, eta, azterlan horretan ondorioztatzen denez, 240 autobus konbentzionalen lekuan beste hainbeste autobus elektriko jarritz gero, kutsadura akustikoa 1,3 dBA murrizten da, hau da, urtean 52.650 €-ko aurrezpen sozioekonomikoa lortzen da kilometro bakoitzeko, eta kostuak %27 murrizten dira.

Efizientzia energetikoa

Gure ahaleginak autobusak ingurumenean duen inpaktua murrizten laguntzen duten funtsezko hiru alderdien efizientzia optimizatzerara bideratu ditugu; hona hemen hiru alderdiok: trakzio sistema eta bateriak, erabilitako lehengaiak eta osagai guztien kudeaketa bizitza baliagarriaren amaierara arte.

Ie bus autobusaren trakzio sistema elektrikoak %70 inguruko efizientzia energetikoa du, eta diesel autobus konbentzionalak, berriz, %30ekoa. Beraz, ibilbide bera egiteko erdia kontsumitzen du.

Ibilgailuaren azken inpaktua, berez, erabilera fasean erabilitako mix elektrikoak baldintzatzen du; izan ere, bateriak kargatzeko erabiltzen den elektrizitatearen ekoizpenean energia berriztagarriek zenbat eta pisu handiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da kargak ingurumenean duen inpaktua eta, ondorioz, txikiagoa ere ibilgailuaren bizitza zikloaren ingurumen inpaktua.

So-Nick bateriak ditu trakzio eta klimatizazio sistemarako; oso bateria arinak eta trinkoak dira, eta ez-augarri hauek dituzte:

- %26ko murrizketa loi-Litiozko baterien aldean. Lehengaiak aurrezten ditu eta ibilgailuaren pisua gutxitzen du. Energiaren kontsumoari lotuta dago zuzenean.
- Baterien tenperatura tartea -40 eta +60 bitartekoa da, eta horri esker edozein merkatutan sar daitezke hozte ekipamenduen beharrik gabe.

Fabrikatzaileak ziurtatzen du bateriak 5-7 urtetik gorako bizitza baliagarria duela. Kalkulatzen da ibilgailuaren bizitza baliagarrian (12-15 urte) behin baino ez direla bateriak aldatu behar.

Baliabideen kudeaketa arduratsua

Autobusen fabrikazioan osagaiak desmuntagarriak eta birziklagarriak izateari lehentasuna ematen zaionez, soldadura sistema tradizionalaren ordez torloju lotzeko sistema modular berria erabiltzen da, eta, horri esker, ibilgailuaren birziklagarritasun eta berreskuragarritasun tasak %90etik gorakoak dira, ISO 22628 “Road vehicles. Recyclability and recoverability calculation method” arauaren arabera.

Aluminiozko egitura torloju lotuta dago txasisera, beraz, ez dago soldadura iraunkorrik, eta ibilgailuaren bizitza amaitzean errazago da osagaiak bereiztea eta kudeatzea.

Bateriak %99 birziklagarriak dira; ioi-litiozko bateriekin, berriz, %60ko ratioak lortzen ari dira, halako bateriak birziklatzea posible egiten duten teknikak garatzeko Europar Batzordeak finantzatzen duen LIFE “ReclionBat” proiektuaren datuen arabera.

Autobusaren bizitza baliagarria luzeagoa da eta mantentze premia gutxiago du, elementu mugikor gutxiago dauzkalako eta horrek trakzio sistemaren bizitza luzatzen duelako. Ie bus-ean motorraren errotorea baino ez dabil biraka, ez baitu ez abiadura kaxarik ez enbragerik.

Ie bus autobusaren inbertsoreen eta trakzio sistemaren gainerako elementuen bizitza autobusarena- ren parekoa edo luzeagoa da, errekuntzako ibilgailuetan ez bezala.



Gure konpromisoa GIZARTEAREKIN

Gizartearekin hartua dugun konpromisoaren barruan, urtean 1,5 milioi euro bideratzen jarraitzen dugu honako arlo hauekin lotutako jardueretara: gure sektorea, heziketa, kultura, kirola eta nazioko zein nazioarteko lankidetzak.



Ondoren, 2017an bultzatu ditugun jardute ildo nagusiak jasotzen dira.



Jarduerak gure sektorearekin

APRAT elkartarekin (Trafiko istripuetan erreskateak egiteko elkarte profesionala) lankidetzan jarduten dugu, zerbitzu publiko eta larrialdietako profesionalen autokarren inguruko ezagutzak hobetzera bideratutako ekintzetan, autokarrak inplikaturik egon daitezkeen istripuetan esku hartzeko orduan.

Badaukagu erakustoki gisa prestatutako autokar bat, egitasmo sozial desberdinetarako musu truk lagatzen duguna. 2017an, bigarren urtez jarraian erabili zen gela mugikor gisara "Kultura Digital@" kanpainan, Gipuzkoako bost lekutan. Heziketa arloko sentsibilizazio kanpaina bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duena, adin txikietan (8-16 urte) programazioa ikasiz teknologiak modu sortzailean erabiltzeko eta, horrela, bokazio teknologikoa bultzatzeko. Eskainitako tailerretan izandako parte hartzaile kopuruen datuak, programak hedabideetan izandako oihartzuna eta parte hartzaileen gogobetetze maila nabarmen positiboak izan dira, eta horrek berretsi baino ez du egin etorkizunean programarekin jarraitzearen egokitasuna.

Gure kanpo kolaboratzaileekin hartua dugun konpromisoaren atalean ikusi genuen bezala, 2017an Goierri Valley egitasmoari atxiki gintzaizkion, zeina metalaren-mekanikaren sektoreko partner industrial bat den eta Goierriko ibarraren eraldaketa industrial gidatzen duen (bertan dago Irizar S.Coop.), elkartutako enpresen arteko kolaborazioaren bitartez, ezagutza partekatuz eta berrituz, gure inguruetik kanpo lehiakortasun industrial eta iraunkortasuna bermatzeko.

Gure babesa sektoreko elkarteei: Asetra, Aetram, Fecalbus, Fenebus eta Madrilgo Partzuergoari. Urtero ematen dugu babes hori autobus eta autokar garraioa bultzatzeko eta posizionatzeko, etorkizunean beharrezko garraioa izango baita.

Urteroko omenaldia erretiroa hartu dutenei. 2017an ere Irizarren egiten zaien urteroko omenaldi hitzordura agertu ziren erretiratuak. Lankideen konpainian egunaz gozatu eta sekula ez dira falta izaten aspaldiko garaietako oroitzapenak, Irizarrekiko loturari eustearekin batera.



Kultura jarduerak



Gure ingurune hurbileko jarduera kultural eta tradizionalak babesten ditugu.

Irizar aktiboki inplikaturik dago euskararen aldeko jardunean, euskararen erabilera areagotzeko eta normalizatzeko, bai enpresaren barruan Euskara Planaren bitartez, bai bere ingurune sozialean, hainbat erakunde eta jarduera babestuz. Horien artean hauek nabarmentzen dira: Kontseilua, Kilometroak, Nafarroa Oinez, Korrika, Ibilaldia, Araba euskaraz, etab.

Urtero euskal zinema babesteko ematen den Irizar sariari Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren barruan "Oreina" filma eta "Natura bizia", "Emakume erraketistak" eta "Bihar Dok Amairu – Basque Culinary Project" dokumentalak errodatzeko babesak gehitu behar zaizkio.

Musika zabaltzen laguntzeko, Irizarrek erakunde desberdinekin dihardu lankidetzan. 2017an, aipatzekoa da Donostiako Orfeoari bere 100. urteurrenean emandako babesa.

Euskal musika eta dantza tradizionalari dagokionez, kolaborazio hauek nabarmenduko ditugu: Bertsolari Txapelketa (poesia eta musika) eta Euskadiko Dantza Txapelketa (dantza).

Gainera, Lasarteko Hipodromoaren 100. urteurrenean kolaboratu dugu.

Hirugarren urtez jarraian, Irizar Albaola Euskal Itsas Faktoriarekin ibili da elkarlanean. Albaolaren jarduera nagusia itsasontzi historikoak eraikitzea da, artisautzako itsas teknologia berreskuratzeko eta balioan jartzeko gune berritzaile batean.

2017an Debako (Gipuzkoa) Praileaitz I kobazuloaren indusketa arkeologikoari buruzko memoria zientifikoaren lanketa finantzatu genuen.



Hezkuntza jarduerak



Irizarrek hainbat modalitatetan laguntzen du heziketaren alorrean:

Irizarrek ate irekiko egunak antolatzen ditu bere esperientzia gizartearekin partekatze-ko eta beste erakunde batzuetan aurrerapen bihurtzeko daitezkeen kezkek sortzeko.

"Bizitzaren bidaia" zikloa babesten segitzen du, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen barruan. Prestakuntza irekiko eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza ziklo bat da, bai eta bizi garen munduaren gainean gogoeta egiteko ere, ahal den neurrian etorkizun desiragarri eta hobea eratzen laguntzeko.


Irizarrek Euskal Herriko ikastetxeekin kolaboratzen du.

Zenbait udalekin eta beste enpresa batzuekin batera, Goierri Fundazioko kidea da, zeinak Goierriko eskualdeko pertsonen prestakuntza eta garapen tekniko, ekonomiko eta soziala lortzea baitu helburu. Ormaiztegi eskualde horretan kokatzen da.

Goieki Enpresa Inkubategian parte hartzen du, Goierriko eskualdean enpresa egitasmo berriak agertzen laguntzea eta bultzatzea helburu.

Hirugarren urtez jarraian, 2017an Irizar STARTinnova programa pedagogikoaren enpresa mentorea da. Gazteen ekintzailetza garatzea xede duen programa hau Diario Vascok bultzatzen du. Batxilergoan edota Lanbide Heziketan dabilzan 16-17 urteko gazteei zuzenduta, jarrera ekintzaileak sustatzen ditu; bai eta ikastetxeen eta enpresa egituraren artean harreman handiagoa egotea ere.

Bi proiekturen bitartez UGLE-Urola Garaiko Lanbide Eskolarekin eta PEÑASCAL S.Coop. ekin "Eskolatze programa osagarrietako ikaskuntzarako diseinu unibertsalean" parte hartzen du, baldintza pertsonalak edo eskola historia dela medio hezkuntzako laguntza premia bereziak dauzkaten 14-16 urteko ikasleei zuzenduta.



Kirol jarduerak



Irizar mantiene varios tipos de patrocinios anuales:

Fundación Kirolgi. Entidad sin ánimo de lucro para la promoción y el desarrollo del deporte guipuzcoano, con prioritaria atención al deporte de rendimiento.

Deporte guipuzcoano al máximo nivel: en Fútbol (Real Sociedad), baloncesto (Gipuzkoa Basket Saskibaloia), y rugby (Ordizia Rugby taldea)

Equipos, pruebas y torneos comarcales en: atletismo, deporte rural vasco, de montaña, ciclismo, así como, actividades deportivas y campeonatos llevadas a cabo en el entorno inmediato de Ormaiztegui.

Se tienen en cuenta de una manera especial a los deportes tradicionales vascos, entre los que cabe señalar la colaboración con **Xistera** – Club de Clubes de Cesta punta de Euskal Herria.

Cada vez tiene más presencia en el **Deporte Adaptado y el Deporte Femenino**. Donde podemos destacar colaboraciones con:

- HEGALAK Zabalik Fundazioa: "Gipuzkoan, jarduera fisikora berregokitzearen bitartez, desgaitasun edota patologia baten ondorioz mendekotasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko programa" eta "Hesirik gabeko bainu programa, Donostiako Kontxa hondartzan".
- Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioa. "Jarduera fisiko egokitu eta inklusiboaren proiektu integrala Urola Garaian eta Goierri dibertsitate funtzionala duten haur eta gazteentzat".
- Arraunketa egokitu-inklusiboko Bihotza Arraun Eskola.
- "Zuzenak" gorpil aulkiko saskibaloia.
- Errugbi inklusiboko mundu txapelketa
- Bera Bera emakumeen eskubaloia taldea.
- Emakumeen futboleko Goierri Gorri Futbol Klub egitasmoa, zeinak Goierri aldeko aurreko taldeak biltzen eta indartzen dituen.



Izaera sozialeko jarduerak



Ekarpen ekonomikorik handiena izaera sozial eta asistentziala duten irabazi asmorik gabeko erakunde desberdinak lehenetsi eta babestera bideratzen dugu.

Tokiko eta probintzia mailan diharduten ia **30 erakunderekin** ari gara lankidetzan; horien artean:

- Proiektu konkretuetan laguntzen diegun elkarte handiak; horien artean aipagarri: Elikagaien Bankua eta Gurutze Gorria.
- Elkarte probintzialak, batez ere pazienteen eta senideen elkarteak. Hasi minbiziaren kontrako AECC elkartetik eta gaixotasun arraroen elkarteetarako: Tximeleta larruazala eta Stop San Filipo.
- Adineko pertsonen laguntzeko elkarteak
- Etab.

Heziketan eta kirol egokituaren dagoeneko aztertu ditugunekin batera, 2017an nabarmentzekoak dira GUREAK Fundazioarekin desgaitasuna babesteko gauzatu diren proiektuak: "Aspergerra daukaten pertsonen enplegarritasuna" eta "Ni zu bezala – Yo soy como tú" (Gipuzkoako haurrei desgaitasunari buruzko ikuspegi positibo eta aktiboa erakusteko).

Nazioartean ere lankidetzan dihardugu, 28 GKEekin egiten ditugun proiektuen bitartez. Aurreko memorieta aipatu ditugun proiektu batzuekin jarraitzeaz gainera, hona hemen 2017an gure laguntza izan duten proiekturik esanguratsuenetako batzuk:

Mugarik gabeko medikuak

Proiektua: "Mediku eta ospitale laguntza Siria iparraldean".

Alde batetik, Al Salamah Ospitaleko herritarrei laguntzen zaie, turkiar mugaren eta Aleporen artean. Mugarik Gabeko Medikuek kalitatezko eta doako arreta medikoa eskaintzen diete gerraren ondorioz hiritik alde egin ostean eremu horretan harrapatuta geratu diren pertsona guztiei. Ospitaleak kanpo kontsulta, larrialdi, ugalketa osasun, amatasun, kirurgia, osasun mental eta gaixotasun kronikoen arloetako pazientei ematen die arreta.



Bestalde, errutinazko txertaketa sistema bat dauka martxan Alepoko eskualdean bizi diren 5 urte-tik beherako haurrentzat eta haurdun dauden emakumeentzat. Al Salamah-ko ospitalean laguntza egitura bat antolatu da, baita unitate mugikorrek ere, lekurik populatuenetan. Hala, txerto batekin prebenitzeko modukoak diren gaixotasunak (oso kutsagarriak eta hilgarriak) zabaltzea ekidin da.



Mugarik gabeko medikuak taldearen bideoa ikusi



Vicente Ferrer Fundazioa

"Mynaganipalli herrian (India), komunitate behartsuenetako familientzat 24 etxeko kolonia bat eraikitzeko proiektua".



Etxeak inflexio puntua dira familion bizitzan: aterpe eraginkorra dira montzoi eurietan; montzoi aurreko garaietako bero handiari aurre egiteko geriza, eta suge eta eskorpioen haginkaden kontrako babesleku. Emakumea ahalduentzeko helburuz, etxebizitzaren eskriturak haren izenean egiten dira; hala, emakumeak jabetza bat eta ondasun bat eskuratzen du seme-alaben etorkizunerako.



Vicente Ferrer Fundazioko bideoa ikusi

Unicef

Proiektua: "Afrika Erdiko Errepublikan genero indarkeriatik eta sexu esplotaziotik bizirik atera diren haurrei zuzendutako arreta integrala". Horretarako, ingurune babesle bat sortu nahi da, komunitatearen baitan haurron eskubideak bermatu eta babesteko.



Proiektu honen bidez ematen den arretan, arreta mediko eta psikosozialeko zerbitzuak sartzen dira, baita hezkuntza eta prestakuntza ere, arlo psikosozialari eta ekonomikoari dagokienez haurrak berriz ere familietan eta komunitateetan txertatuta amaituko den babes integraleko prozesu baten barruan. Gainera, kasuak detektatzeko sistemak eta alerta goiztiarra indartzen dira komunitate mailan.



Irizar S. Coop.
Zumarraga bidea, 8
20216 Ormaiztegui (Gipuzkoa) | Spain
T +34 943 80 91 00 | F +34 943 88 91 01
irizar@irizar.com | www.irizar.com

